

Poesia gida kaleratu du Arrasateko Udal Bibliotekak

Erredakzioa. Donostia

Hamar idazlek gomendatutako ehun poema libururen berri ematen duen gida kaleratu du Arrasateko udal bibliotekak, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko antolatu duen ekitaldi zikloarekin bat eginda. Argitalpen hori plazaratzeaz gain, jendaurreko hainbat ekitaldi antolatu dituzte ziklo hori osatzeko.

Atzo jarri zen abian zikloa, Rikardo Arregi Diaz de Herediaren Kartografia poema liburuaren inguruko literatur solasaldiarekin. Gaur beste literatur solasaldi bat izango da, 18:30ean, Kulturete kultur etxean: Sergei Dovlatov idazlearen El compromiso liburuari buruzkoa. Beste ekitaldi bat ere izango da gaur, zikloaren barruan: Maite Franko ipuin kontalariaren saioa, 18:00etan, Santa Marina auzo bibliotekan.

Elena Odriozolaren ilustrazioekin osatutako Minimo erakusketa ikusteko aukera izango da etzitik maiatzaren 13a arte, Kultureteko klaustroan. Asteartetik igandera bitarte izango da zabalik erakusketa.

Apirilaren 23an Raymond Queneauren Estilo ariketak liburuaren (Igela, 2005) irakurraldia eskainiko dute Xabier Olarra itzultzaileak eta Carlos Zabala eta Ramon Agirre aktoreek, 19:00etan, Kultureteko areto nagusian. Egun berean hasi eta apirilaren 30era arte xahututako liburu azoka egingo da Arrasateko Udal Bibliotekan.